


MIKEL ZARATE

bizipenen bultzadaz



irrisiko xorta

zugaza argitaldaria

e/16-1

325,1



Euskal Biblioteka Labayru



1021374
LITERATURA / N. 2655

bizipenen bultzadaz

MIKEL ZARATE

bizipenen bultzadaz



LEOPOLDO ZUGAZA, EDITOR
DURANGO



BIZKAIKO AURREZKI KUTXA'ren
Kultur Ekintzaren laguntzaz

© MIKEL ZARATE
LEOPOLDO ZUGAZA, EDITOR
AVDA. MONTEVIDEO, 11 - DURANGO (Vizcaya)


I. S. B. N.: 84-7406-031-1
Depósito Legal BI: 1301-1978

Impreso en La Editorial Vizcaína, S. A.
Carretera de Bilbao a Galdácano. 20
Bolueta-Bilbao


Hiru urte baino gehiago
Kartzelako bizi-alarquntza itotau
egon ondoren,
nik bera baino
berak ni
maiteago
beti

izan nareu
Jose Migel Garateri,
nire aitari;
ta hirurte baino gehiago
etxeko bizi-alarquntza itotau
egon ondoren,
nik bera baino
berak ni
maiteago
beti


izan nareu
Julia Lejanapari,
nire amari,
zure bihotze
ta ester one.



«Literatur egilearen lana armiarmaren lanaren antzerakoa da: barruan duen saregaia, hizkuntza gaien ugaritasuna, nahiz handi nahiz txikia dela, bazterraren, arloaren, norbere asmoaren harira erabili behar du. Saregaia bat bera delarik, sarekera bakoitzak asmatu behar du norbere izate, eskabide, aiurri ta eginkizunari dagokion eratarara. Pintore aberatsak —gaztelerak, adibidez— pintura-gai edo hitzen ugaritasun handia du gure aldean, oihal hobeak eros ditzake, marku ederragoak. Gu urriago aritzera beharturik gaude. Gure eskuarteko pintura ontziak ttiki dira eta ez asko: oihalak edo temak ehundu gabe dauzkagu eta markuak edo literatur jeneroak oraindik zerratzeko. Hala ere, baliakizun eskas horik nahikoa ditugu benetako arte-lan artailuak egiteko. Besteek konpresoraz eta tresneria teknikoagoz lantzen duten harria, guk lanabes apalagoz landu behar dugu, baina guk ere landu egin genezake horratik. Besteek burdinolatan urtzen eta moldatzen duten burdina guk mailuz eta ingudez itxuratu behar dugu, baina itxuratzea behintzat gure eskutan dugu.» (Bitoriano Gandiaga).




HASIERA




HASI EGINGO NAIZ

Hasi egingo naiz,
hasi,
ereiten letrazko
hazi;
hasi egingo naiz,
hasi,
sortzen letrazko
bitxi,
hasiak egina
baitirudi,
eta eginak
urregorri.



ATSEKABEZKO BIZIPENAK



1937, APIRILAK 26

Zeus txikiaren haundi izan gura.
Agindu eroa. Indar frogantza.
Zezen hegalarien marruma dantza.
Infernua dator gure zerura.

Tximist lehertuen abiadura
haserre gorritan Gernikarantza...,
hasi da, hasi da hiri triskantza
eta garrasika dago mindura.

Garrasi larritan ama, umea,
aitaren gorputz hil buru gabea;
garrasika txori, lore, burdina,

harri, ohol, haize ta su irakina;
garrasiz herrien betiko lotsa,
askatasunaren betiko hotsa.

HAURRA IZAN NINTZEN BAINA...

Haurra izan nintzen,
haurra;
baina begietan,
belarrietan,
erraietan
ditut irakiten,
oroimenaren hotsetan,
egun gorri haiek.

Abioi zabarren abiada geldia,
bonben burrunbada,
tiroen dunbada,
balen txistua,
sirena hots izugarria,
jendearen arrapalada,
arnasots estua,
larriaren larria,
zaurien min lakarra,
heriotzazko negarra,
ezinaren ezina...,
gorroto lehertuaren
gerrate amorratuaren
adur zikina!

Haurra izan nintzen,
haurra,
baina begietan,
belarrietan,
erraietan
ditut irakiten,
oroimenaren hotsetan,
egun gorri haiek.

Aita kartzelan,
Segovian,
Cuellarko gaztelu zaharraren
itzal hotzaren
itxaropen hertsian;
bizi-alargun ama,
hara ta hona
laguntza eske behin eta berriz
fusilamenduen dardara larriz.
Ni
ezbeharraren
sareetan
nintzen erori,
ta maisuaren
hatzaparpetan
«En pie, flecha de España,
Falange victoriosa...»
nuen ikasi,
ta irabazleen
haundikeriazko harrokeria eroan,
galtzaileen
isiltasunezko beldur itoan,

ekinaren
okerraren
leloan
{«Tú no te llamas Mikel,
tú te llamas Miguel».
«¡Oye, tú, aldeano,
habla en cristiano!».
«Calvo Sotelo,
Onésimo Redondo,
José Antonio Primo de Rivera,
Franco, Franco, Franco...,
¡Arriba España!»)
ez nintzena izaten
irakatsi zidaten.

Haurra izan nintzen,
haurra,
baina begietan,
belarrietan,
erraietan
ditut irakiten,
oroimenaren hotsetan,
egun gorri haiek,
bihotzaren pozetan
ezereztu nahiez
ahazturaren hautsetan.

¡BU... ENAS DIAS!

Garaileen ospe, indar, ohore
ta Zeus jaunaren jainkotasuna
disdiska zituen jaun euskalduna
gurerantz zetorren harro, dotore.

Etxe atarian «Sasihendore»,
«¡Buenos días!» maltzur eta biguna.
Nire amonaren estuasuna!
Nire amonaren lotsa kolore!

Eta ahal izan zuen bezala
larri eta dardar gora jasorik
bizkor eskuineko beso makala,

belaunbikaturik harri gainean,
«¡Bu... enas días!» esan zion apalik
gerrate ondoko egun batean.

DUDA-MUDATAN

Egiaren argi lerdan eta alai
nire bihotzaren poz zuri kutun,
gezurraren ilun zantar eta itun
nire bihotzaren min beltz etsai.

Argi ta ilunezko nahasmen hibai
nire bihotzean gau eta egun,
ta bide egitean... bide ezezagun,
aikomaiko, ezmez, zalantza, ezbai...

Uda eta negu, negu eta uda,
bihotz barnean dut beti duda
urduritasun huts mozkor hozkariz,

badaezpadako urrats traketsez,
zihurtasun bete baten gurariz,
betiko bizipoz baten ametsez.

GIZARTEAREN KARIKATURA

Hibaiaren	hegaletako
haltzak,	sahatsak eta
sasi	kirikolaztuek
zoroen keinu	izugarriak
egiten	dizkidate.
lhauterietako	mozorroz
jantzi ditu	ur gaixoak
(goitikoz	eta behetikoz)
azkenengo	euritearen
ondorengo	goraldi bulartsuan.
Kosmetiko	berri koloretsuz
apaindurik	dute zuhaitzek
beren berezko	edertasun ederra
(liraintasun	klorofilatsua),
gaurko	neskatilla lerdan
pailazotuen	antzera,
gaurko	politiko
gezurti	batzuk bezala,
gizon	desgizatuen gisa,
zeintasunik,	zertasunik eta
nortasunik	gabe;
eta farregarri	ta negargarri
bihurtu zaizkit	hibai hegaletako
zuhaitz	endakatuok.
Ez dute	udaberriko
jantzi dotore	loratsurik;
pinturaz	eta ikatzez
josiriko	jantzi berriak

dituzte
eta anitz
(uraren
belarri
trapu zaharrez,
papel zaharrez
egindako bitxi
(zibilizazio
simaur hatsitua,
Organua jotzen
hibaiaren
intsentsu beltzez
dituzte
lainoak
eta ni
kantatzen
haltzen
eta sasi
ihauterietako
itun eta
ur
ondoan

soinean,
edergailu
ume galduak)
eta eskuetan,
plastikozko botilaz
eta gomaz
nabarmenak
eta teknikaren
gauzeztana).
hasi da trumoia;
ondoko lantegiek
lurrinkatzen
ura eta zuhaitzak;
negarrez daude;
hileta kantu bat
hasi naiz
eta sahatsen
kirikolaztuen
kalejira
geldi hau
gaixoaren
ikustean.

BIZIMINEZ

Elurrez baserria
ta elurrez hiria,
nire begietan
paisaje berria.

Eguzkiaren garra
elurraren negarra,
nire begietan
paisaje zaharra.

Negarraren lurruna
lainoaren iluna,
ta gauaren mamuak
hartu du eguna.

Iluna eta hotza,
larridura zorrotza,
gauaren mamuak
hartu dit bihotza.

Mamu madarikatu!
Sits lirdinga gogaitu!
Nire biziminak
suntsituko zaitu.

TINTA ETSIPENEZ

Ezinaren neke beltzez
zazpi eginbehar,
poeta hegada berdez
ametsetan zehar.

Eulitxoen kutsadura,
eulitzarren pozoi,
poetaren abiadura
haizetan suminkoi.

Irakiten bere harma
sarezko hitzetan,
zuzentasun armiarma
sare hedaketan.

Sare inguruan dantzan
mila hegalari,
ehiztarien esperantzan
poeta kantari:

«Eulitxo lausengatzaile
zikin higuigarri,
eulitzar zurrupatzaile
zital hondagarri...!»

Anitz eulitxo txikiki
urduri sarean,
hiru eulitzar handiki
haiekin batean.

Baina altzairuzko ahotsez
eulitzar taldea
ta urrezko hortz zorrotzez
hautsi du sarea.

Eulitxo ta eulitzar
dantzan atseginez,
poeta gixaxoak negar
egiten du minez.

Ezinaren ezinean
eginbeharrrik ez,
poetaren hegatzean
tinta etsipenez.

ARDIAK ETA TXAKURRA

**Neguko udaberria
udaberriko udaberri bihurtzeko
lehenbiziko ahalegin handia egin zuten
Euskal Herriko 339 apaizei.**

Herdoi beltzeko burdin arantza
larre inguruko elorri,
zeru urdinez bero horiska,
larran lur lakarra gorri.

Belar berdeak, belar guriak
erre egin dira, erre,
ta ardi otzanak Patxiren larran
haserre daude, haserre.

Txutxu ta mutxu, ixi ta mixi,
haserrearen beldurra;
gizen ta mizen, lasai ta masai,
aurrean duten txakurra.

Zuri ta gorri, gorri ta zuri,
estukuraren kolore,

beldur itoa leher indartsu...,
berehalaxe adore:

—«Ezin gaitezke, ezin honela
hemen bizi, txakur jauna!
Non dira gure eskubideak?
Non gure askatasuna?

Gure artile, esne, haragi
eta bizia ematen...,
eta esparru agortu hontan
egon behar lurra jaten?

Goikoa goian (berezko lege)
behekoen onerako,
ta gu zaintzeko zaude zu goian
ta gure zerbitzurako.»

Ardi larrien min arrenkurak
arretaz ditu hark entzun;
beekariak zaunka isildu
ta «aita bihotzez» erantzun:

—«Ardi gaixoak! Zertan zarete
zoroak bezala ari?
Pazientzia! Hortan bai gaude
gure ugazaba ta ni.

Etsaiak daude izkutuan zai,
etsai bihurriak anitz!
Zuen galdua zuekin zuek
zaintzen egongo ez banitz!

Etorriko da gure ugazaba,
berarekin udaberri.
Pazientzia! Gure ugazaba
haserre ez dezagun jarri,

gogorkeriak gogorkeria
berehalaxe bai dakar...»
Ardiak larran, hesi barruan,
isil, geldi, larri, bakar.

ABIADAREN IRUDIKERIA

Oan orratza...,
geldi dago paisaje zaharra
neguko eguzki beltzaren
nagitasun beldurtian.

30ean orratza...,
atzerantz doa paisaje zaharra
neguko eguzki zuriaren
ahalegin zapalduan.

60an orratza...,
abiadan doa atzerantz paisajea
neguko eguzki berdearen
bizkortasun ustetsuan.

90ean orratza...,
abiadan dator paisaje berria
udaberriko eguzki koloretsuaren
burujabetasun gurarian.

120an orratza...,
hegan dator paisaje berria
paisaje zaharraren aurkako
ametsezko ustekerian.

150ean orratza...,
burruka gogorrean ari dira
paisaje zaharra ta berria
gorroto gorriaren lainotan.

180an orratza...,
suntsitu egin da paisajea
herioren negu zaharreko
odol beltzaren itzalean.

AGUR, JOSE MARI, GERO ARTE!

**Jose Mari Rotaetxe («Rotis») izan zenari,
Derioko Seminario-Ikastetxeko jantokian
hainbeste ordu batera egin ondoren.**

Hementxe egoten izan zara,
baina orain ez zaude
gurekin.
Hementxe egoten izan gara,
baina orain ez gaude
zurekin.
Hementxe, hotz eta bero,
barre eta algara,
zurekin egunero
egoten izan gara
hemengo mahaietan
jaten,
edaten,
elkarrizketetan...,
zurekin, ai, Jose Mari,
guztiok berriketari.
Zenbat aldiz
gure «Rotis»?
Zenbat aldiz batera
bazkaltzen,

euskara,
erdara,
zuri adarra joten,
zure apaiztasuna,
zure gizabidea,
zalduntasuna
ta irribarrea
zirelarik beti
apal eta beldurti
zuregan agertzen...?
Gure «kondea»,
gure lagun maitea,
hementxe egoten zinen zu,
baina ez zaude;
gugandik alde egin duzu
ta minez gaude.
Gure arnasestu
ta ikarak ezin sinestu...,
baina alde egin duzu,
zure hutsune mingarrak
egiten baitu
egiztatu.
Betiko ote...?
«Ez, ez, ez...»
zure fedez
zure lagunek diote.
Agur, Jose Mari, gero arte!

PINTADAK

Hortz zorrotzeko arrozkeriaren basamortu jendetsuan
ezinaren atsekade hertsia itoak indarkeriaren eta gogor-
keriaren beldur larriz luzaturiko urte lakar huts luzeen,
luzaturiko urte lakar huts gorri luzeen, luzaturiko urte
lakar huts gorri hotz luzeen, luzaturiko urte lakar huts
gorri hotz higuingarri luzeen, luzaturiko urte lakar huts
gorri hotz higuingarri luze luzeen..., luze luzeen..., luze
luzeen..., luze luze luze luzeen

ondorengo okada garrastuaren lore beltzak,
gauaren laguntza ilunez egindako matxinada isila,
gure herri ta hirietako apainkeria nabarmena,
Euskal Herriaren isilpeko barne zimikoaren agerbidea,
askatasun egarriaren garrasi mailukariak,
zuzentasun gosearen oihu telegramatuak,
iraun nahiaren korroka...,

GORA EUSKADI ASKATUTA!!!

BESTELA ITO EGINGO NAUZUE, HIL

Euskara batzen
ari diren guztiei.

Ez!

Ez, ez!

Ez, ez, ez!

Ez dut nahi gure hizkuntzaren
zaharkeriazko kutsaduraren
etengabeko zurrunbiloaren
zurrupa mareagarriaren
zorabiozko jirabiraren
goitika higuingarriaren
ezinegon larriaren
bizi ezinaren
ezinean bizi.

Ez dut nahi lehenaren itzalean
galduriko euskararik,
lehenaren lurpe humelduan
ustelduriko euskararik,
lehenaren urkamendi garratzean
hildako euskararik.

Ez dut nahi hitz, aditz, hizki,
hizkuntza arkaiko ulergaitzik;
ez dut nahi axularkeriarik,
ez dut nahi aranakeriarik;
ez dut nahi sitsak jandako euskararik,
euskara herdoildu hatsitu momiatu-
rik.
Euskara bizi berri batu gazte bat nahi dut,

gaurko arnasa, izerdi ta odolez oratua,
baserri ta hiriz osotua,
gozoa ta garratza,
leuna ta latza,
garbia ta zikina...,
egunerokoa,
edozertarakoa.
Atera nazazue,
mesedez, faborez, otoi,
museotik,
kanposantutik...,
bestela ito egingo nauzue, hil.


1978

Penaz idazte dut,
penaz,
1978,
mila bederatzirehun
eta hirurogei
ta hamazazpigarren urtean

Penaz idazten dut,
penaz,
«mil novecientos setenta y ocho»
bakarrik ulertuko
dutelako
gure erdaldunek.

Penaz idazten dut,
penaz,
«mil novecientos setenta y ocho»
irakurriko
dutelako
gure euskaldunek.
Penaz idazten dut,
penaz,
1978,
mila bederatzirehun
eta hirurogei
ta hamazazpigarren urtean.

ATSEGINEZKO BIZIPENAK



1933, MARTXOAK 6

u z
d e
a z
b i
e o
r g
ri

j n
a e
i z
o t
n n
i

e k
r a
le

p k
i a
n n
p i
ir

t k
x a
a i
n r
t r
x o
a g
n

b a
e l
za

t n
a e
h t
e i
g g
a e
z

h n
a e
s z
i t
n n
i

k z
u e
k n
u e
a m
r i
e a
nb

ETORRI EGITEN ZAIZKIT

Grinaren garraxi larriz
izangokoaren biluztasunean
etortzen den haurra bezala;
forma, usai eta kolorez jantzi nahirik,
argiaren birjintasunean
etortzen den eguna bezala;
irribarre eguzkitsuz
edo negar euritsuz,
ugaritasunaren itxaropenean
etortzen den udaberria bezala...,
etorri egiten zaizkit
olerkiak
etorriaren sabel erdimintsuan.

Etxeko giro maitasuntsuan,
mendiko haizearen altzo dantzarian,
kaleko kutsadura zaratatsuan,
oinez, kotxean, abioian noalarik,
geldi nagoelarik,
gizartearen gutasunean,
bakardadearen nitasunean,
goizaldian,
gauerdian...,
gutxien uste dudanean
etortzen zaizkit
nire giza-muga hertsu
eta kutsatuaren barnera,

babes irritsaren murmur
goxozko liluramenduz.

Eta jantzi egiten ditut nirean
kolore berdez,
laztan xamurrez,
abesti higiduraz...,
jantzi ta apaindu egiten ditut nirean,
astiaren joanean.

Etorri egiten zaizkit olerkiak
niregandu nahirik.
Egin...
ez dut inoiz egin olerkirik.

OROITZAPENA

Maite izan nituen Narkis-en ispilu emeak;
bakardade gaztearen ustekeria hutsezko grinen
zorabio liluragarritz maite izan nituen,
bakarrezko maitakeriaren ametsetan.

Ezjakinen ausartziaz maite izan nituen
behean, goian eta aldamenean zeuden
ispilu ito kaltegarriak...

Baina zu, maite, zu etorri zinen nirera
iluntze gorri batean
ta apurtu egin zenidan beheko ispilua
ta leize beltz izugarri bat ikusi nuen
nire behearen behean.

Zu, ene maite, zu etorri zinen nirera
goiz berde batean
ta apurtu egin zenidan goiko ispilua
ta zero urdin eder zabala ikusi nuen
nire goiaren goian.

Zu, ene maite kutun, zu etorri zinen nirera
eguerdi zuri batean
ta apurtu egin zenizkidan aldameneko ispiluak
ta zeu ikusi zindudan
elkartasunezko maitasun berriaren bozkario gozotan.

1969

New York-en

hil dituzte,

Bethel-en

hil dituzte,

aleluia!

Gure patriarkak,

gure senatoreak,

gure presbiteroak

hil dituzte,

aleluia!

Gure etxe dotoreak,

gure kotxe ederrak,

gure traje apainak

hil dituzte,

aleluia!

Gure erlijiokeria,

gure politikeria,

gure itxurakeria,

hil dute,

aleluia!

Ogibidearen segurantzarik

EUKI ez arren,

IZAN nahi duten gazteek

hil dute,

aleluia!

Bizitza asmatzearen
bizi-pozez
bizi nahi duten gazteek
hil dute,
aleluia!

Askatasunez
bizi nahi duten
laurehun milek
hil dute,
aleluia!

Hippiek hil dute
New York-en,
Bethel-en,
gure zaharren
gizartea,
aleluia!

1975, AZAROAK 20

Gasolina usainez eta grasaz beterik eman zidan,
ogi salutatua eskaintzen den bezelaxe,
periodiko bat ematen den bezelatsu,
bihotz zati bat erregalatzen den bezala,
hiriko kale arteko kutsaduraren itzalpetan;
txoferren esku dardaratiz eman zidan
zemento bloke zapalkorren hatzaparpetan
sorturiko basalorea,
bertso-paper zaharren poz berria:

«Pedro Urtia ere
ein da enteratu
Franco nola daukagun
oraintxe defuntu;
Jainkoak eiten badeu
gixontxu au santu,
imini ein daiela
zeruetan altu
eztiten a barriro
mundura bajatu.»

Goizean eman zidan,
askatasun eguzkiaren goizean,
eta bertso-paper zahar baztertuen hauts negarrak
irribarre egin zuen disdiska.

BERTSO PAPERAK

Paper zuri, gorri, berde, horiak,
berriketarien kantu pozetan
merkatu, feria eta jaietan
eskurik eskura erabiliak;

euskaldunen lehen aldizkariak,
bizitzako joan-etorrietan
gazte ta zaharren patrikeretan
tolesturaz eta koipez josiak;

bertso-paper zahar hegalariak,
gure lehenaren arnas gordailu,
giza-gertaeren euskal ispilu;

gure herri xehe olerkariak
eskolarik gabe eta aldika
mendez mende egin duen kronika.

PAISAJE PIZTUAREN BOZKARIOTAN

Neguko urte latzen erdiminak
printz larriz zeuden gauaren irakiduran
eta eguzki berdearen itxaropen zoliak
urratu egin du beldurraren iluna;
txinta itoaren negar izoztua
lehertu egin da egunsentiaren sukarrean
ta garrasi dantzaz mailukatzen du
paisaje mozkortuaren algara.
Piztu egin da lehenaren burdinazko fenix zaharra
orainaren eztanda gorrizko hautsetan,
piztu, betiko geroaren amets zuritan,
piztu, bozkario berdearen argitan.

DANTZAN, DANTZAN

Dantzan, dantzan
udaberri,
dantzan, dantzan
urre izpi.

Dantzan, dantzan
urre izpi,
dantzan, dantzan
egun berri.

Dantzan, dantzan
egun berri,
dantzan, dantzan
haize ezti.

Dantzan, dantzan
haize ezti,
dantzan, dantzan
larre guri.

Dantzan, dantzan
larre guri,
dantzan, dantzan
berde bizi.

Dantzan, dantzan
berde bizi,

dantzan, dantzan
ur maitati.

Dantzan, dantzan
ur maitati,
dantzan, dantzan
mila txori.

Dantzan, dantzan
mila txori,
dantzan, dantzan
kantu zoli,

Dantzan, dantzan
kantu zoli.
dantzan, dantzan
oierkari,

Dantzan, dantzan
oierkari.
dantzan, dantzan
luma urduri,

Dantzan, dantzan
luma urduri.
dantzan, dantzan
bertso bitxi.

UR BIRJINA

Egun berriaren giro urdina
mendi bihotzeko haizetan,
ispiluz jantzirik dator birjina
lizarren musika berdetan.

Lizarren musika berdetan alai,
pin-pin-lin-pau-xa-tu-rik doa
bizi egarberaren emaztegai
eder, gozo ta oparoa.

Ba dator, ba doa, usain, kolore
ta bozkarioa hedatuz,
ba dator, ba doa, ondoko lore
ta poeta maitezoratuz.

ALTZAIRUZKO ARRANOAREKIN MUNDUZ MANDU

Irribarrez goian suzko argia,
behean agurka, dirdir, lainoa
(paisaje berrien ikuspegia),
hots abiadaren aurretik doa
gizonen altzairuzko arranoa.

Grezia, Israel, Turkia, Hungria...,
hauzo bihurtu zait mundu osoa
(teknikaren dohai harrigarria),
eta, munduz mundu, kantari noa,
agertuz gizonei pake gogoa.

LANETIK KIROLA

Biziminez gogoa,
biziminez ola,
bizimin alai;
mahatsetik ardoa,
lanetik kirola,
langileen jai.

Pisu eta trebetasun,
indar eta elkartasun,
sokatiraren poztasun.

Gazte, indartsu, trebe,
astuntasunaren garaile
bi harri-jasotzaile.

Idiak lagun
ta gizona jaun,
indar froga,
hamabost baietz,
hamasei ezetz,
idipropa.

Hasi da
ahari-talka;
aurreraka,
atzeraka,
ahariak taka
eta taka
topaka,
saltuka,
ta jendea
oihuka
ta apustuka.

Itsasoaren jolastoki urdin,
arrantzale gazteen ahalegin,
estropaden eder eta atsegin!

Pelotarekin txalapartari,
txalapartarekin dantzari,
Euskal Herriko pelotari.

Biziminez gogoa,
biziminez ola,
bizimin alai;
mahatsetik ardoa,
lanetik kirola,
langileen jai.

EUSKARAREN HIRIKO EMAI

**Euskaldun berri izandakoei,
euskaldun berri direnei
eta euskaldun berri izango direnei.**

Lehen euskaldun berri,
orain euskaldun,
zuekin lotsaz beti
herri hobendun.


Euskal etorkizun
jatorraren zai
zaudeten euskaldun
ikasi alai,
mutil ta neska,
adiskide min,
zuentzat nahi dut
kantu bat egin.

Lehen euskaldun berri,
orain euskaldun,
hiri eta baserri
zuekin zordun.

Gora euskararen
hiriko emai,
zuengatik baita
orain kulturgai!
Gora zuen amets
eta ahalegin,
ezina egina
baita zuekin!

Lehen euskaldun berri,
orain euskaldun,
zuekin Euskal Herri
piztu dezagun.

AMETSEZKO BIZIPENAK



IRATZARRI NAHI NUKE

Uda bihotzeko eguzki bero,
zemento grisezko bloke zapalkor,
gas pozoitsuaren ke laino mozkor,
sorgin haizearen hauts dantza ero,

motor durrunda... ta zu egunero
infernua gris hortan, egunero hor,
arima grisdun lur pusketa lehor,
zure jaunen robot, baloi, numero...

Iratzarri nahi nuke barnean
lotan daramazun gizon poeta,
gizon aitzindari eta profeta,

izangokoaren ezerezean
zuregan dagoen gizon euskaldun,
iratzarri zeu ta zeure zeutasun.

ENARA!

Enara!
Hegoen olatu
haizearen itsasoan.

Enara!
Abiadaren karabilka
udaberriaren argitan.

Enara!
Askatasunaren higidura
gizonen ostatuan.

Enara!
Egunsentiko kantari
gure etxeko atarian,
momorroen ehiztari
gure etxeko alorrean....
enara izan nahi nuke,
enara bizkor eta trebe,
gure Herriko atarian,
gure Herriko alorrean.

MIGEL PEREZ JIMENEZ NAHI NUKE IZAN

Euskaldun «zaharrei».

Migel Perez nahi nuke izan,
Migel Perez Jimenez,
Migel Perez Jimenez Gonzalez,
Migel Perez Jimenez Gonzalez Lopez
izan nahi nuke
ametsezko mitoen zorabio gaixoa sendatzeko,
Euskal Herria euskaldunez betetzeko,
geu geutasun oso betean izateko.
Nire aitaren eta amaren,
aita eta ama maite-maiteen abizenak
aldatu egin nahi nituzke,
nire euskal deitura sakratuen suntsitzaile bihurtu,
Migel Perez Jimenez izan nahi nuke
Mikel Zarate Lejarraga izan beharrean...,
eta, naizena izanez,
euskaldun eta euskaltzale izanez,
Euskal Herri osora joan nahi nuke
Xabier Artaberen buztin lehor antzua haragitzera,
Aitor Goirizelaiaren haragi gris hila biztutzera,
Mikel Pagonabarraga Gerrikaetxebarria Arteagoitia

[Gabilondo

erdaldun erdaltzale amorratuaren
arrazakeria zantar eta zikinaren
harrokeriazko deiturakeriaren
herensuge beltz luze zahar hondagarriaren
zazpi-buruak ebakitzera
behin betiko.

BESTE ASKOK BEZALA...

Bete nahi nuke nire gogoa,
bete gogoaren sabel birjina,
bete sabelaren oihuzko grina,
bete grinaren bultz gorri eroa,

bete bultz horren huts sakon osoa,
bete hutsaren min bizi gordina,
bete minaren muin larri irakina,
bete muinaren muin betirakoa,

bete muinaren muin barneko nia,
niaren nitasun gogoa bete,
leku ta aldiaren muga gainditu,

betikotasunez bete bizia,
gutasun betean osoro maite,
betearen betez betiko nitu.

ETXEPAREREN KONTRAPASEZ ORAINDIK

Euskaldun guztiei.


EUSKARA!

Europa zaharreko
erlikia lerdan,
bitxi zapalduaren
nekezko iraupen:
Europa berria dun
hire itxaropen.

EUSKARA!!

Gazteen odol berriz
berritu ondoren,
Europaratu hadi,
orain eta hemen,
Europarekin bai dun
betiko iraunen.

EUSKARA!!!




AMAIERA



AZKENA EMAN EZIN

Hasi nintzen
ni urkultzen
nire pena
ta atsegin,
ta urkuldu
ta ahuldu,
ai, azkena
eman ezin.

Azkenaren
beldurraren
egoera
larri trakets!
Iraupen gar
nigan sukar,
betiera
nik amets!



AURKIBIDEA

HASIERA	11
Hasi egingo naiz	13
ATSEKABEZKO BIZIPENAK	15
1937, apirilak 26	17
Haurra izan nintzen baina	18
¡Bu... enas días!	21
Duda-mudatan	22
Gizartearen karikatura	23
Biziminez	25
Tinta etsipenez	26
Ardiak eta txakurra	28
Abiadaren irudikeria	31
Agur, Jose Mari, gero arte!	33
Pintadak	35
Bestela ito egingo nauzue, hil	36
1978	38
ATSEGINEZKO BIZIPENAK	39
1933, martxoak 6	41
Etorri egiten zaizkit	43
Oroitzapena	45
1969	46
1975, azaroak 20	48
Bertso paperak	49
Paisaje piztuaren bozkariotan	50
Dantzan, dantzan	51
Ur birjina	53
Altzairuzko arranoarekin munduz mundu	54
Lanetik kirola	55
Euskararen hiriko emai	57
AMETSEZKO BIZIPENAK	59
Iratzarri nahi nuke	61
Enara!	62
Migel Perez Jimenez nahi nuke izan	63
Beste askok bezala...	64
Etxepareren kontrapasez oraindik	65
AMAIERA	67
Azkena eman ezin	69
Aurkibidea	71

LABAYRU-IKASTEGIA	
BIBLIOTEKA - DEKIO	
Sarr	43.588/89
Gaia.	
Tokia.	1978'eko Maiatzaren 31-ean

bizipenen bultzadaz
 irrisko xorta
 Seigarren idaztia
 1978'eko Maiatzaren 31-ean
 amaitu zen
 Bilbon

La Editorial Vizcaína, S. A.
 inprimategian

Lehenengo argitaratzean
 500 ale egin dira
 1 etik 500 era zenbakituta

irrisiko xorta

1

MANU ERTZILLA
hitzik ainitz idatzi dut

2

AMAIA LASA
hitz nahastuak

3

XABIER IRATZEDER
fededunen arbasoa

4

JESUS ETXEZARRAGA
olerki solteak

5

XABIER AZURMENDI
Jesús

6

MIKEL ZARATE
bizipenen bultzadaz